

XXI. MENDEKO EUSKALDUNAK: GUK EUSKARAZ, ZUK ZERGATIK EZ?

·Zuek bai jakin!: Joxe Salegi *Belarreta* ·Elkarrizketa: Mari Mar Renedo ·Izerdi patsetan:


Xabier Sudupe kapitain handiaren agurra ·Boteprontoan: Aitor Calvo

Herri Aldizkaria Otamotz

2007ko

maiatza

127. alea





Entzumen Zentroak

**ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA,
ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO**

UROLA GARAIARAKO ZENTRO BERRIA



Areizaga, 4 • Tel.: 943 72 98 83 • URRETXU

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
XXI. mendeko euskaldunak: guk euskaraz, zuk zergatik ez?
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**
Zer iritzi duzu Abiadura Handiko Trenaz?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 16 Klik eta klik**
Joxe Manuel Bereziartua, *Bere*
- 19 Gure gomendioa**
- 20 Zuek bai jakin!**
Joxe Salegi, *Belarreta*
- 24 Elkarrizketa**
Mari Mar Renedo
- 26 Izerdi patsetan**
Xabier Sudupe kapitain handiaren agurra
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Aitor Calvo




Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

XXI. mendeko euskaldunak Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Euskarak iraungo badu, dakitenek hitz egiten dutelako eta ez dakitenak ikasten saiatzen direlako izango da. Azken hauen artean, geroz eta gehiago dira atzeritik etorritakoak. Batzuek euskara ikastea lortu dute jada eta beste batzuk horretan ari dira eta horrela guztiontzat eredugarria den jarrera erakusten dute.

Marlon nikaraguarrak, euskarazko komikiak eskutan dituztela, Gernikako Arbola plazan. Argazkia: Gotzon Aranburu.



Ada Curbelo: "Beste batzuekin egotea eta esaten dutena ez ulertzea oso gogorra iruditzen zait"

Ada Curbelo kubatarrak Jon Gartzandia zumarragarra ezagutu zuen bere herrialdean eta elkarrekin bizitzera etorri ziren. Bertako hizkuntza ikastea beharrezkoa iruditu zitzaion eta Udal Euskaltegian izena eman zuen. Dagoeneko bosgarren urratsean dago eta Gernika okindegiko bezeroekin euskaraz egiten du.

Ekainean hiru urte egingo du etorri zenetik. "Kuban senarra dena ezagutu nuen, etorri eta ezkondu egin ginen". Euskal Herriaz ezer gutxi zekien. "ETAk lehergai-luren bat jartzen duenean soilik heltzen dira hemengo albisteak Kubara. Senarrak ez larritzeko esan zidan, hemengo egoera ez dela komunikabideetan agertzen den bezain gatazkatsua".

Oso gustura bizi da gure artean. "Jendearekin ez dut inongo arazorik izan. Oso ondo hartu ninduten, beharbada, nire senarra ezaguna delako. Ez naute sekula ezberdina sentiarazi, ezta baztertu ere".

Ondo moldatu da hemengo bizimodura, nahiz eta Kubakoarekin alderatuz ezberdina den. "Jendearen izaera ezberdina da. Kuban jendea maitekorragoa eta samurragoa da, beharbada klima dela eta. Hemengo jendea neurtuagoa da. Sukaldaritza ere oso ezberdina da. Kuban ongailu asko erabiltzen ditugu".

Dena den, Curbelo Euskal Herrira egokitzeko ahalegina egiteko asmoz etorri zen eta lortzen ari da. Hala, hona heldu eta berehala Udal Euskaltegian izena eman zuen. Oso argi du Euskal Herrian bizi nahi duen orok euskaraz jakin behar duela. "Hemen bizi behar banuen, integratu

Ada Curbelo, Udal Euskaltegian.



beharra nuela pentsatu nuen. Gainera, nire senarra euskalduna da", dio.

Hasieran, Euskaltegira joatea gogorra egin zitzaion. "Hitz guztiak arrotzak ziren niretzat, baina poliki-poliki ikasten joan nintzen. Hobeto moldatzen naiz. Euskara ulertzeko gai naiz, oraindik hitz egiteko arazoak badituz ere. Ez naiz elkarrizketa luzeak mantentzeko gai", azaldu du.

Senarra, senitartekoak eta lagunak bere ahaleginaz harro daude, noski. "Ez didate egunero aipatzen, baina pozik daudela uste dut. Gutxitan hitz egiten dut beraiekin euskaraz. Izan ere, badakit eurek ere gaztelaniaz dakitela eta ausartzea kostatu zait".

Lanorduetan, ordea, euskaraz egitea egokitzen zaio. "Duela urtebete Gernika okin-

degian lanean hasi nintzen eta oso lagun-garria izan zait euskaraz praktikatzen. Bezero batzuek euskaraz eskatzen dute eta nik euskaraz erantzuten diet. Nahiko ondo moldatzen naiz, ulertzeko ez baitut zailtasunik. Bestalde, nire itxura dela eta, askok euskalduna naizela uste dute. Ez didate kubatar itxura hartzen. Kubatarra naizela eta euskara ikasten ari naizela esaten didanean, harritu egiten dira".

Lantokiak ez ezik, telebistak ere balio dio mintzapraktika egiteko. "Kutsidazu bidea, Ixabel telesaila ikusten ari naiz, gustura gainera. Euskaltegian liburua irakurri genuen lehenago. Telesailaren eta liburuaren artean aldeak daude, baina biak atsegin dituz", aipatu du.

Euskal ohituren eta festen berri ere badu dagoeneko. "Oso entretenigarriak iruditzen zaizkit. Hemen beti dago zer ospatu. Ohiturei eta ospakizunei eusten diezue, Kuban baino askoz ere gehiago".

Ada ez da inolaz ere gure hizkuntza ikasten hasi izanaz damu. "Erabaki zuzena izan zen. Gainera, lana aurkitzeko beharrezkoa izango nuela ere pentsatu nuen. Euskara ikastea zaila iruditzen zait, baina luzaroan jarraitzeko asmoa dut. Gainera, Euskaltegian oso giro ona dugu".

Gainontzeko atzerritarrek euskaraz ikastera animatu nahi ditu. "Bertako hizkuntza jakitea oso ona da. Beste batzuekin egotea eta esaten dutena ez ulertzea oso gogorra iruditzen zait. Bestalde, aipatu bezala, zenbat eta ezagupen gehiago izan, orduan eta hobeto lana bilatzeko. Euskara ikastea oso gomendagarria da".


Olessia Kirkatz: "Amaginarrebak euskaraz egiten dit, ilusio handia egiten baitio ni ikasten ikusteak"

Olessia Kirkatz errusiarra da eta duela zazpi urte bere herrialdean Antzuolako mutil bat ezagutu zuen. Maitemindu egin ziren eta duela bost urte Euskal Herrira etorri zen. Antzuolan bizi da eta Arrasaten ingeles irakaslea da, baina Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegira etortzen da euskara ikastera. "Egokiena ni hona etortzea zela pentsatu genuen, baina sorpresa handia hartu nuen heldu nintzenean. Izan ere, milioi bat biztanle duen hiri batekoa naiz eta Antzuola oso txikia da niretzat. Hasieran gogorra egin zitzaidan. Klaustrofobia sentitzen nuen hango kale estuetan. Gainera, mendiak daude eta nire jaioterrian ez. Han heldu baino askoz ere lehenago ikusten da ekaitza datorrela. Hemen, ordea, bat-batean heltzen da. Zorionez, dagoeneko ohitu naiz", dio.

Senarra ezagutu aurretik ez zuen Euskal Herriaren berri. "Espainia besterik ez zen existitzen niretzat, baina orain Euskal Herria oso ezberdina dela jabetu naiz. Jendea oso jatorra iruditu zitzaidan hasieratik. Hotzak zaretela esaten duzue, baina zeuen burua hegoaldeko jendearekin konparatzen duzuelako da hori. Nik Errusiako jendearekin alderatzen zaituztet eta han askoz ere itxiagoak gara. Komun publikoetan sartu eta jendeak kaixo esatea oso deigarria iruditu zitzaidan, adibidez".

Etorri aurretik izan zuen euskararen berri. "Senarrak bere familiak euskaraz hitz egiten zuela esan zidan eta sorpresa hartu nuen. Bere koadrilakoek ere euskaraz egiten dute eta ez dira gaztelaniara pasatzen niregatik. Ez dute zertan egin beha-

Olessia Kirkatz, Udal Euskaltegiko atea irekitzen.



rrik. Duela hiru urte saiatu nintzen lehenengo euskara ikasten, Arrasaten, baina lanarengatik utzi behar izan nuen. Iaz berriz hasi nintzen, Urretxun".

Ondo moldatzen da dagoeneko. "Ulertzen dut eta, saiatuz gero, hitz egiteko gai naiz. Dena den, nire helburu nagusia ulertzea da, elkarrizketetan ez galtzea. Nire senarraren senitarteko batzuek oso ondo hitz egiten dudala esaten didate, baina ez dut uste horrenbestera denik". Errusian ere badakite euskara ikasten ari dela. "Oso ondo iruditzen zaiela eta ez dela horrenbestera esaten didate", dio barrez.

Berak ere ez dela horren zaila dio. "Euskarak logika du eta hori oso garrantzitsua da. Aditz asko daude, baina oinarria hartuta ez da zaila ikastea. Etxean ere

ikasten saiatuko banintz, hobeto menperatuko nuke, baina ez dut etxeko lanak egiteko astirik. Dena den, euskarazko irratia eta telebista jartzeko ohitura dut. Ostiraletan *Martin* telesaila ikusten dut, jarraitzeko erraza baita eta euskara ikasteko oso aproposa. *Gaur Egun* eta *Supernanny* ere ikusten ditut. Euskarazko musika entzuteko ohiturarik ez dut, ordea. Ingeles musika bakarrik atsegin dut".

Kalean ez du euskaraz asko egiten. "Arrasate, Urretxu eta Zumarragan lehen hitza gaztelaniaz izan ohi da. Familiakoekin, ordea, euskaraz egiten dut. Amaginarrebak euskaraz egiten dit, ilusio handia egiten baitio. Jarraitzeko eta hemendik aurrera beti euskaraz egin behar dudala esaten dit. Lagunekin ere aritzen naiz, baina gutxiago", azaldu du.

Gainontzeko etorkinak euskaraz ikastera animatu nahi ditu. "Euskaltegian oso giro ona dugu eta ikasteak merezi du. Oso ariketa ona da, gainera. Adinekoei, adibidez, oroimena lantzeko, denbora pasatzeko eta jendea ezagutzeko aukera ematen die. Nik luzaroan jarraitzeko asmoa dut".

Kirkatz euskara ulertzeko premia sentitu zuelako joan zen Euskaltegira. "Ulertu egin nahi dut, nire ingurukoek hitz egiten baitute. Bilbon biziko banintz, beharbada, ez nintzateke animatuko", aitortu du.

Olessia Kirkatz euskal giroan ondo moldatu da eta euskaldunok ondo ezagutzen gaitu dagoeneko. "Jendeak bere sustraiei garrantzia handia ematen die eta gazteek euren herriko kultura eta ohiturak horren ondo ezagutzea harritu egiten nau".

Paula, Ana eta Marlon: "Euskara ikastea beste toki batzuetan bertako hizkuntza ikastea baino zailagoa da"

Joxe Jauregi zumarragarrak eta Paula Blanco nikaraguarrak Internet bidez izan zuten elkarren berri. Duela hiru urte eta erdi aurrez aurre ezagutzea erabaki zuten eta, ordutik, elkarrekin bizi dira Euskal Herrian. Ezkondu ondoren, duela bi urte, Paularen seme-alabak ekarri zituzten: egun 15 eta 12 urte dituzten Ana eta Marlon. Ikastolara joaten dira eta dagoneko euskaraz hitz egiteko gai dira. Amak ere gure hizkuntza ikasteko asmoa du. Paulak ezer gutxi zekien Euskal Herriaz etorri aurretik. "Indarkeriarekin lotzen nuen. Joxek Espainia eta Frantzia artean dagoela esan zidan eta nik ez nuen mapan aurkitzen. Heldu bezain pronto martxoaren 11ko Madrilgo atentatua izan zen. Ama zoro moduan jarri zen, non sartu nintzen galdezka".

Ondo moldatu da hemengo bizimodura. "Hemen Nikaraguan baino hobeto bizi da jendea". Bi herrietako kulturen artean alde handiak daudela dio. Joxek ederki asko gogoratzen du zer iruditu zitzaion deigarriena. "Ez zuen ulertzen zergatik ateratzen garen kalera edatera, etxean edaria edukita. Latinoamerikarrak beti parrandan daudela uste dugu, baina Paula oso etxezuloa da".

Euskal Herriko txokoak ezagutzeko gustatzen zaio batez ere etxetik irtetea. "Autoan joatea gustatzen zait. Autotik irten gabe, hemengo bazterrak ikusteak". Senarrak egia dela dio. "Aurreko batean bide okerra hartu nuen eta ez zidan batera esan!", aipatu du.

Erosketak egitera eta hondartzara joatea

Paula, Ana, Marlon eta Joxe Jauregi, Santa Barbaran.



ere atsegin du. "Kontuan izan behar da han ez dugula erosketak egitera joateko aukerarik. Hondartzei dagokienez, hemen ez naiz uretan sartzen, han baino askoz ere hotzagoa egoten baita".

Aurrera begira, euskara ikasteko asmoa du. Joxek bai ala bai izango dela dio. "Haurrengatik egin nahi dut, batez ere. Ondo ikasi beharra dutela esaten diet behin eta berriro, baina beraiek nirekin ezin dutela euskaraz hitz egin eta horrengatik ez dutela gehiago erabiltzen esaten didate", azaldu du Paulak.

Seme-alabez ari dela, beraiek ere Euskal Herrira primeran moldatu direla aipatu du. "Eskolan ondo moldatzen dira eta hemengo eguraldira ni baino hobeto egokitu dira. Elurra deigarria iruditu zitzairen eta oso

gustura ibili ziren. Etorri aurretik, ez zuten ezagutzen. Koxkortuak zirela ekarri nituen eta beldur nintzen, baina ez dute inongo arazorik izan. Ez naiz inolaz ere etorri izar-naz damu".

Ana eta Marlon ere ez. Gainera, dagoneko euskaraz hitz egiteko gai dira. Anak hitz batzuk ikastea kostatzen ari zaiola dio. Joxek euskaraz hitz egiteak lotsa apur bat ematen diela azaldu du. "Ez lirajteke lotsatu behar, zailtasunak izatea logikoa baita. Azken finean, ez da euren ama hizkuntza. Ezin da egun bakarrean ikasi! Nirekin ere gutxitan hitz egiten dute. Gehienetan erdaraz erantzuten didate, lotsa dela eta. Dena den, ikasten ari direla ikusteak pozten nau".

Haurrak hemengora moldatzeko ahalegina egiten ari dira, baina amak euren sustraiei eustea ere nahi du. "Hona etortzea aldaketa handia izango zela banekien, baina ez ditut sustraiak galdu nahi. Beraiei ere hori aipatu diet. Nikaraguan neskei festa handi bat eskaintzen zaie 15 urte betetzen dituztenean eta Anak berea izan du. Tabernan ospatu genuen, gure senitarteko eta lagunekin. Nire ama egotea ere gustatuko litzaidake, baina...".

Ahal bezain pronto Nikaraguara joateko asmoa dute. Izan ere, Joxek ez du oraindik hura ezagutzen eta Paulak amarekin egon nahi du, noski. Ordurako, erronka markatu dute: guztiak euskaraz hitz egiteko gai izatea. "Euskara ikastea beste toki batzuetan bertako hizkuntza ikastea baino zailagoa da. Izan ere, gaztelania ondoan izanda...", dio Paulak.

Sidi Elbouanani: "Etorkinek ere euskara ikastea komeni da, hizkuntza gal ez dadin"

Sidi Mohamed Elbouanani 17 urte ditu eta DBHko laugarren maila ikasten ari da Iparragirre institutuan. Azpeitian jaio zenez primeran ikasi zuen euskaraz. Zortzi urterekin, ordea, familia Marokora itzuli zen. Hamaika urte zituela Zumarragara etorri ziren. Ordurako euskara eta gaztelania nahiko ahaztuta zituen, baina berreskuratu ditu. Euskaraz eskolan bakarrik egiten duela aitortzen du, baina bizirik mantentzeko ahalegina egin behar dela dio.

Marokoar jatorriko gaztea Euskal Herrian jaio zen. Hori dela eta, euskalduntzat eta marokoartzat du bere burua. Umetan ikasi zuen euskara. "Hemen jaio nintzenez, inongo arazorik gabe ikasi nuen. Bost anaia-arreba gara eta guztiok euskaraz dakigu, oraindik hitz egiten ez dakien txikiak izan ezik. Etxean marokoz egiten dugu. Anaia-arrebon artean gutxitan aritzen gara euskaraz. Etorkin familia batzuetan seme-alabek euskaraz egiten dute gurasoek esaten dutena ulertzea nahi ez dutenean, baina guk ez dugu halakorik egiten", azaldu du.

Kalean, berriz, gaztelerez egiten duela dio. "Eskolan bakarrik egiten dugu euskaraz, baina ondo moldatzen naiz. Dena den, ohitura faltagatik-edo, batzuetan kosta egiten zait euskaraz aritzea", aipatu du. Beste askorentzat bezala, euskararekin duen harremanean telebista garrantzitsua da. "ETB1 ere ikusten dut, gainontzeko kateekin batera, baina ez naiz oso telebista zalea", dio.

Hiru hizkuntza menperatzen ditu eta

Sidi Mohamed Elbouanani, institutuko patioan.



ingeleza ere ikasten ari da. "Azken honetan okerrago moldatzen naiz, baina oraindik badut hobetzeko denbora. Etxean ez dugu horretaz hitz egiten, baina Marokora joaten garenean senitatekoek horrenbeste hizkuntza ezagutzea ondo iruditzen zaiela esaten dute".

Aipatu bezala, Sidik Azpeitian ikasi zuen euskara, gero Marokon bizi izan zen eta azkenik Zumarragara etorri zen. "Azpeitian ondo ikasi nuen, lagunekin euskaraz egiten bainuen, baina Marokon euskara eta gaztelera dezente ahaztu nituen. Dena den, itzuli nintzenean, erraz samar berreskuratu nituen. Halere, gogorra egin zitzaidan", dio.

Hala ere, etorkinei gure hizkuntza ikastea gomendatzen die. "Animatu egin nahiko nituzke, merezi baitu. Gainera, etorkinek ere euskaraz ikastea komeni da, hizkuntza gal ez dadin. Bestalde, lan egiteko orduan oso baliagarria da".

Elbouanani Batxilergoa egiteko asmoa

du, baina oraindik ez du erabaki zer ikasiko duen ondoren. Dena den, argi du Euskal Herrian bizitzen jarraituko duela. "Hemen jarraituko dut, bertako bizimodu hobe baina".

Euskal Herrian erabat integraturik, Sidik ikastetxera heltzen diren etorkin herriki-deei laguntzen die. Jon Orbegozi Iparragirre institutuko orientatzaileak bere laguntza eskertzekoa dela dio. "Itzultzaile beharra izan dugunean, izugarrizko laguntza eskaini digu. Euskaraz, gaztelaniaz eta arabieraz dakien mutila ikastetxean bertan izatea, guretzat oso baliagarria izan da", aitortu du Orbegozok.

Gazte marokoarra kanpotik etorri direnentzat eredu dela ere badio. "Bertan bizitzea, lan egitea eta erabat integratzea posible dela erakusten du. Etorri berriei beldur pixka bat ematen die euskara ikasi beharrak, baina badituzte ereduak imitatzeko eta hori oso positiboa da".


Gilberto Cruz: “Emaztea eta haurrak euskaldunak direnez, euskara erabili beharra dut”

Gilberto Cruz kolonbiarra medikua da eta duela 20 urte etorri zen Euskal Herrira, traumatologian espezializazioa egitera. Bartzelonara joan nahi zuen, baina Gurutzeetako ospitalera bidali zuten. Bertan ondo hartu zuten, gelditzea erabaki zuen. Egun, Zumarragako ospitalean lan egiten du, urretxuar batekin ezkondu dago eta euskara ikasten ari da.

Kolonbian espezializazioa egiteko aukera txikia dago. "Gure herrialdetik kanpo bilatu behar dugu eta arruntena Espainiara edo Estatu Batuetara (EEBB) jotzea da. EEBBetan ingeles azterketa egiten dutenez, hona etortzea erosoagoa da. Bartzelonara joateko asmoa nuen, baina Euskal Herrira bidali ninduten. Toki aldaketa eskatu nuen, baina onartu zuteneko hemen gustura nengoen eta gelditzea erabaki nuen. Euskal Herriko toki guztietan ondo hartu naute".

Cruzek ezer gutxi zekien gure herriaz etorri aurretik. "Indarkeriaren berri besterik ez nuen. Zoritxarrez, Kolonbiarekin berbera gertatzen da: gauza txarrak onak baino ezagunagoak dira. Zuei deigarria irudituko zaizue, baina ama Kolonbian beldurrez bizi zen, Euskal Herrian nengoela eta".

Kolonbiarrari beste gauza batzuk iruditu zitzaizkion deigarriak, batez ere estatu espainiarreko kultura aniztasuna. "Euskal Herrian berezko kultura duzue. Espainia barruan horren herri ezberdinak egoteak nire arreta piztu zuen. Izan ere, Kolonbiara betikoa heltzen da: Andaluziako folklorea, paella, zenenak... Espero ez nituen gauzak aurkitu nituen:



herrialde baten barnean, beste batzuk".

Euskal Herrian behin betiko gelditzeko, beste arrazoi batzuk ere izan zituen. "Nire alaba gaixotu egin zen eta espezialista onenetako batek Gurutzeetako ospitalean lan egiten zuen. Espezializazioa lortu ondoren, erabaki bat hartu behar nuen, gelditu ala nire herrira itzuli: alabaren arazoa medio, gelditu egin nintzen".

Duela 15 urte Zumarragara etorri zen lanera. Dagoeneko, erdi euskalduntzat du bere burua. "Pixkanaka, jendea ezagutu dut, lagunak egin ditut eta euskalduntasun sentimendua ikusi eta ulertu dut. Bizitzaren gorabeherak medio, dibortziatu egin nintzen, lehen emaztearekin izandako alabak Leioan bizi dira, Urretxuar batekin ezkondu nintzen eta beste bi seme-

alaba izan ditugu. Emaztea eta haurrak euskaldunak direnez, euskara erabili beharra dut. Ikasten lehenago hasi nintzen, duela zazpi edo zortzi urte, baina orain hasi naiz hitz egiten", aitortu du.

Orain sentitu du euskara ikasteko nahia. "Bere garaian lanarengatik hasi nintzen ikasten. Izan ere, perfil jakin bat lortzera behartzen gaituzte. Orain, etxean ere beharrezkoa dut. Haurrekin hitz egiteko gai naiz eta akatsak zuzentzen dizkidate". Ospitalean bertan hartzen ditu eskolak. "Hiru urte eta erditan Euskaltegira joan nintzen, baina oso neketsua zen; ez nuen denborarik. Zazpigarren maila gainditu ondoren, utzi egin nuen. Euskarak, haurrekin hitz egiteko ez ezik, Osakidetzan postu finkoa lortzeko ere balio du".

Cruzek euskara ikastea zaila dela dio. "Erraza dela eta logika duela diozue, baina zerotik hasten garenoi neketsua egiten zaigu. Gazteleraren eta euskararen egiturak zeharo ezberdinak dira eta adinean aurrera goazenei zailagoa zaigu hizkuntza berri bat ikastea".

Dena den, ziur lortuko duela. Izan ere, integratuta sentitzen da eta inguruan euskaldun asko ditu. "Nire beste familia urrun dagoenez, emaztearenarekin ospatzen dut dena. Bertako festa guztiak ezagutzen ditut. Emaztearen koadrilan integratuta nago eta elkarte bateko kidea ere banaiz: Ur-Gainekoa. Duela bost bat urte egin nintzen bazkide. Hemengo sukaldaritza eta sukaldean aritzea oso gustukoak ditut, baina noizean behin Kolonbiako zer edo zer prestatzen dut", azaldu du.


Zergatik bukatu zuen Jesusek Kristo bat eginda?



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Nola izan euskaldun jator eta abenturazalea...



...Volkswagen Californiarik eduki gabe? California, Traffic, Transporter edo antzeko furgonetaren bat ez izateak hori dakar. Jende batek uste du ez zarela mendizalea. Eta ez zarela euskaldun moderno, jator eta *guaya*. Guri berdina zaigu jendeak mendizale, euskaldun, moderno, jator eta *guayak* ez garela pentsatzeak, ziurrenik horiek guztietatik geroz eta gutxiago dugulako. Hala ere, aski errotuta dagoen *furgomodaren* gaiari helduko diogu, inbidia ez-sano batetik.

Ez dakigu moda kontua den edo ze kristo, baina etxebizitza batekin konformatu ez, eta bigarrena erostea amesten duten geroz eta lagun gehiago egoteak hausnarketarako bide eman digu.


Halakoxeak baitira furgoneta hauek: hozkailua, berogailua, koltxoiak, mahaia, armairuak, bizikletak eta eskiak eramateko tramankulua... Autoa tuneatzen duen tipoa *flipau* bat da, noski, baina furgoneta soineko dotore (eta garestiarekin) janz-

teak labela dauka, eusko labela. Eta eusko labela dute ere furgonetetan (ez bakarrik furgonetetan) jartzen diren pegatinekin: ardilatxaren irudia, edo basurdea (autentikoagoa da, gaiztoagoa), edo 'Nuklearrik ez' dioena (geroz eta gutxiago ikusten dira), edo 'Pirinioak', 'Berria', 'Euskal Herria', 'AHTrik ez' eta antzekoak. Euskaldun izateaz gain, ekologista, euskaltzale, abertzale eta abenturazale garela erakutsi beharra baitauekagu. Ezkertiar garela erakusteko prezio bat duelako.

Oporretara trenean joan zarela eta 3-4 izarreko hotelean lo egin duzula esaten badiezu, "a ez, hori ez da gure estiloa!". Auskalo zenbat euro balio duen katxarroan bidaiatzea ordea *putamadre* dago, edonora joateko askatasuna ematen du... askatasuna, horratx hitz klabea. Furgonetak askeago egiten gaitu... enfin. Uf, espero dugu orain arte furgonetan pakete gisa eramane gaituzten lagunek euren etxeko ateak ez ixtea.

Zer iritzi duzu Abiadura Handiko Trenaz?

Erreferenduma egin beharko litzatekeela uste al duzu?



Gonzalo Gil



Dena txikitu behar dute. Gainera, diotenez, elite batentzako trena izango da. Dena den, informazio, plano, ikerketa... gehiago falta dela uste dut. Erreferenduma beharrezkoa dela uste dut.

Iñaki Sasieta



Egia esan, ez dakit egitasmoa beharrezkoa den ala ez. Ez naiz gehiegi informatu. Hori bai, badakit ingurumenean eragin handia izango duela eta zenbait lurjaberi galerak sorraraziko dizkiela. Informazio gardena behar da eta gero erreferenduma egin.

Javi Calzada



Ez ditut ezagutzen proiektuaren nondik norakoak, ez dut informazio gehiegirik. Beraz, informazioa gehiago hedatu beharko litzatekeela uste dut. Beno, agian zabaldu dute eta ni ez naiz konturatu... Herritarrei euren iritzia eskatzearen aldekoa naiz, noski. Hori sekulan ez dago soberan.

Maite Fonseca



Egia esan, ez diot kontu honi kasu handirik egin. Beraz, ez dut iritzi oso argirik. Hori bai, logikoa eta bidezkoa irudituko litzaidake erreferenduma egitea. Izan ere, halako egitasmo erraldoi bat abian jarri aurretik beharrezkoa da herritar guztien iritzia jakitea.

Gaia: Ikasturte amaiera

Doinua: Zeru altuan

Ane Agirre Imaz




Denborarekin batera azkar
joaten denez pausoa,
opor garaia gertu ikusiz
ez dut begian lausoa.
Orain artean lanean pasa
degunez urte osoa,
oso gustora antzematen da
oporren usain gozoa.

Ahal bada dena gainditu eta
uda osoko pakea!
Gustoko dugu mendira edo
hondartzara joatea,
eta gainera etxekolanik
gauean ez izatea,
zabaldu bedi zalaparta ta
gozamenaren atea.

Opor egarriz hemen gabiltza
bai ikasle ta bai maisu,
baina oraindik, aste pare bat
eta azterketak, aizu!
Egia esan ni oporzale
eta festazale nauzu,
zuk ere oporrak hartzeko gogo
izugarria al duzu?

iritziz iritzi

Gotzon Aranburu



Boluntarioak eta besteak

Joera politikoa, erlijiosoa, futbol talde faboritua...
Honelako ezaugarriei erreparatu ohi diegu pertso-
nak definitzeko: ezkertiarak, eskubikoak, fededu-
nak, agnostikoak, Athletic-zaleak, Erreal-zaleak...
Bada beste ezaugarri bat, ordea, niretzat gero eta
garrantzitsuagoa dena pertsoez iritzia izateko
orduan: lanen bat borondatez egiten dutenek
osatzen dute multzo bat, eta trukean dirurik ez
badago ezer egiten ez dutenek bestea. Azken
hauek azkartzat daukate beren burua eta onura
propioa bilatzen ez duen oro gizajotzat hartzen
dute. Beren lan orduak sartu eta gero, telebista
irenstea, gimnasioan matxakatzea edo elkartean
afari ederra dastatzea izango dute zeregin, eguna
joan eta eguna etorri. Ahaztu dadila gizartea

beraiez.. Udaletxekoek, maisuek, entrenatzaile-
ek... egin dezatela, "horretarako jarri baikenituen"
esaten entzungo diezu. "Ezin dut", edo "beste
konpromisu bat daukat" erantzunak ere askotan
entzungo diezu. "Hori ez da nire lana" lasai bota-
ko dizutenak ere ez dira gutxi. Eskatu iezaiezu
horiei bonoak saltzeko, edo igande goiz batean
ume talde bat mendira eramateko...
Besteei, eskerrak eman nahi dizkiet. Horiek ere
ikusten dute telebista eta joaten dira gimnasia
edo elkartera, baina ateratzen dute denbora
umeei dantzan irakasteko, pilota txapelketak anto-
latzeko, Iñaki Beitiaren martxa prestatzeko, bertso
eskola eramateko... Eskerrak herrigintzan ari diren
eta hain beharrezkoak ditugun "gizajo" horiei.

1996

Urretx rugby taldea


Hona hemen herritar talde batek 90eko hamarkadan sortutako rugby taldearen argazkia. Partidak Elizalden jokatzen zituzten eta denboraldi guztian bakarra irabazi zuten.

Goian, ezkerretik eskubira: Joseba Guridi, Juanjo Aranburu, Jesus Junquera, Txues, Txus, Pablo Berriotxoa, Diego Bilbao, Agirrezabal eta Joseba Segurola.

Behean, ezkerretik eskubira: Ito, David Bilbao, Joxemi Alvarez, Andy, Ibon Araiztegi, Lazaro eta Jonan Torquemada.

Pika, Joseba Iturbe, Kaspe, Gerar, Zabalo, Uli, Jaro eta Andi legazpiarrak ere jokatzen zuten, besteak beste.





Herri Aldizkaria Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.

-Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:

Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu

-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
zm@euskalnet.net

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



Lorea
Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



Lurdes Rodríguez
Optiko-optometrista
Iparragirre, 1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com



arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU



TABERNA
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

ARozTEGIA

Altzariak neurritza

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

AUZO LAGUN KOOP.

Zumarragako ospitalerako ondorengo pertsonala behar da:

SUKALDARI NAGUSI 1, Ref: SN1
SUKALDARI 1, Ref: S1
3 KAMARERA, Ref: KAM1

Kurrikulumak: rrhh.urb@auzolagun.com



▼
Ale honetan Eitzagako San Isidro jaietan ateratako argazkiak ikus ditzakezue. Ezkerreko orrialdean, Karmakros taldekoek eskainitako antzezlanaren agertzen da eta eskuinean Irrintziren Dantzari Txiki eguneko jaialdia, barrakak eta festa batzordearen taberna.

Joxe Manuel Bereziartua, 'Bere'



MULTIOPTICAS

Betaurreko progresiboak
isla-kontrako lenteekin **149 €**



Diseinuko betaurreko progresiboak

COOL bilduma, MultiOpticas-en eskusiban

Eskaintza hau 07/05/07tik 07/06/30era arte izango da. Cool, Cool + eta Fashion Pro markako armazoi selekzio bat eta 2 lente progresibo Multifoko E 1.5 AR Basic, zil: +2 esfera +4 -6ra; add: +3 hartzen ditu barne.

Carlos Guerra, 1 Tel.: 943 79 29 95 ARRASATE	lbargarai, 16 Tel.: 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva, 15 - GROS Tel.: 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta, 2 Tel.: 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel.: 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M.G. Tel.: 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel.: 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko, 23 Tel.: 943 69 84 70 TOLOSA
---	---	--	---	--	--	---	---

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA


FAGOR



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE



Iñaki Bastarrika eta Koldo Goitia

Ejercicios mediocres / Hala-holako ariketak

Inoiz eskutan nahi izan duzu liburu baten antzeko erakusketa dotore bat? Eta harriduraz baso baten barna bidaiatu etxetik urrats bakar bat eman gabe? Eta zuhaitz, lore, txoritxo eta beste izakien artean gizaki apal eta atsegin baten barrenean sakonduz zoazela sentitu? Eta Zumarragan bizi eta harekin mintzatzen zarelako edo ezagutu gura duzulako margolari baten barren biluztua deskubritu? Hori egiteko prest bazaude,

Iñaki Bastarrikak eta Koldo Goitiak Koldo Cadierno margolaria nolako den ezagutaraziko dizute. Liburutxoa parez pare izaten duzunean, dastatuko duzu, harrituko zara eta zizpuru bat baino gehiago botako dituzu. Maitasun askorik dagoela antzematen da liburuan, haien egileetan eta jakina, inprimatzailearen lanean ere bai. Benetan, lagun, erosten baduzu ez zara damutuko!

Andoni Salamero

Wilco

Sky Blues Sky

Zorionekoak gu!! Wilcok diska berria kalera-tu du: *Sky Blues Sky*. Nola ez bada, zuzenean defendatuko du. Hilaren bukaeran Bartzelonako *Primavera Sound* jaialdian joko du. Bertara joatea gomendatuko nuke. Chicagoko taldeak baduelako zerbait. Jeff Tweedyk konposatutako abestiek, bere kantatzeko erak, hitzek, magiaren moduko zerbait badutelako. Americana edo country-rockean sendotzen da euren musika, baina

hori baino askoz ere gehiago da. Estiloak beldurrik gabe eta era dotorean nahasteko abilezia, esperimentazioa, konponketa eder-rak, melodia gozagarriak... Hori guztia nor-tasun handiarekin. Zaratarik atera gabe, barru-barruraino heltzen dira Wilcoren doinuak. Euren lanetako bat gomendatzearen, *Summerteeth* (1999) maisulanaren aldeko hautua egingo nuke. Entzun eta gozatu.

Igor Susaeta



Noah Baumbach

Una historia de Brooklyn

Berkman familiaren egunerokoa islatzen duen komedia dramatikoa edo drama komikoa da. 1986. urtea da eta Berkmandarrak New Yorkeko Brooklyn auzoan bizi dira. Ama idazlea da eta aita idazle izateko ametsa albora utzi duen irakaslea. Bikote harremana ez da ona eta banantzea erabakiko dute. Sendoa zirudien familia behera dator. 16 urteko semea aitaren alde jarriko da eta 12 urtekoa amaren alde. Guztiak porrotak


dakartzen sentipenei aurre egin beharko diete. Historia eta pertsonaiak aldatzen doaz, gauzak hobeto ulertzen lagunduko duten ñabardurak agerian utziz. Hauek erakustea da, hain zuzen ere, filmaren meritu handiena. Gidoiak ere pertsonaiak sinesgarriak egiten eta topikoetatik urruntzen laguntzen du. Filma ostiral honetan, 22.15ean, eskainiko da Zelai-Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea

Joxe Salegi 'Belarreta': Idi zaletasunaren aitzindari

Urretxun eta Zumarragan herri kirolarekin lotutako gizonik bada, hori Joxe Salegi Belarreta da. Mutrikutik Urretxura etorri zen Isabel taberna ezaguna hartu zuenean eta bertan makina bat desafio hitzartu zituen. Gustura bizi du inguru honetan dagoen idi zaletasun handia, garai batean bera baitzen probatan zebilen ia bakarra. Oraindik idiak ditu eta Egoitz bilobak ateratzen ditu.

Egoitz Armaolea eta Joxe Salegi, Mendizabal baserri ondoan.



Lasturren jaio zinen, ala?

Hala da, bertakoak nituen gurasoak. Urtebete bakarrik nuela, Mutrikuko Olatz auzora joan ginen. Han baserri bat hartu genuen eta familia galanta hazi ginen bertan. Zortzi anaia-arreba ginen, ni bosgarrena. Han bizi izan nintzen, 20 urterekin ezkondu nintzen arte. Orduan, emaztearen familiaren baserrira joan nintzen bizitzera. Han urte batzuk egin ondoren, San Migelera joan ginen.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Antiguako erara bizi ginen: labrantzan, idiekin... Eskolara bat ere ez, sasieskola bakarrik. Orduan lana besterik ez zegoen.

Olatz auzoko baserrian, alokairuan al zeundeten?

Ez, gurasoek erosi zuten: duela 80 urte, 14.000 durotan. Gipuzkoan dagoen baserri onena izango da, igual. Buelta osoan soroa du, ederra baserria... Orain lagata dago. Nire aita-amak hil ziren eta arrebari gelditu zitzaion. Haren umeak kanpora joan ziren eta ez da inor bizi. Pena handia ematen du halako etxe handia hala ikusteak, baina hala etorri dira gauzak eta hala segitu beharko dugu.

20 urterekin ezkondu zinela esan duzu.

Gaur egun baino sasoi hobea nuen... Baserrian aritzen nintzen lanean. Familia handia zegoen eta San Migelera joan ginen, Belarreta baserrira. Han hasi nintzen idi probetan, bakarrik jarri ginenean, eta nire izena handik hartutakoa da. Belarreta gora eta Belarreta behera. 34 bat urterekin joan nintzen bertara, baina errentan egon nintzen. Harrobian eta galdategian ere lan egin nuen, Isabel taberna hartu aurretik. Hor egin genituen urte batzuk, baina erretzea tokatu zitzaion... Orain alabaren tabernan bizi naiz.

Nolatan hasi zinen idi probetan?

Lehenago ere, baserrian, beti idiekin ibiltakoa nintzen eta gustatu egiten zitzaidan. Gaztetan zezenak nituen eta haiekin ibiltzen nintzen: plazetara eramaten nituen. Neure kontura jarri nintzenean idiak erostea tokatu zen, pagadi bat bainuen erausteko. Orduan hasi nintzen probetan eta akabo... ezin laga!

Mutriku inguruan zaletasun handia dago gainera.

Baserri eta idi onak egoten ziren San

“Idiak erostea tokatu zen, pagadi bat bainuen botatzeko. Orduan hasi nintzen probetan eta akabo... ezin laga!”

Migel inguru hartan. Geure ilusioa hori zen: jaietan, meza ondoren, hamarretakoa egitera joan eta idi kontuez aritzea.

Makina bat saio egingo zenituen.

Idi pare ona tokatu zitzaidan eta onenekin jokatzen hasi nintzen. Aiako Erreizta famatuarekin bizpahiru aldiz jokatu nuen, beste batzuekin ere bai... Orduan jende asko joaten zen ikustera eta sarrerekin diru-kopuru ederra biltzen zen. Bestelakoan, jokalaria ez naiz izan. Ez naiz jokalaria beroa, gu baino argixeagoak ere badira hor eta...

Apirilaren 22an, ordea, desafioa jokatu eta irabazi zenuen Igeldoren kontra.

Martxoan erakustaldia eskaini zuen berak Zumarragako harri handiarekin eta

22 plaza egin zituen. Hortik sortu zen desafioarena. Ikusten izan nintzen eta berotu egin nintzen. Igeldok Bizkaitik idi pare ederra ekarri zuen eta hemen ez dagoela halakorik esan zuen. *Igual egongo dituk!*, esan nion. 600 euro jokatu genituen bakoitzak.

Harri hori berezia da, ala?

Lehenago ere guk erabilitakoa da, duela 20 bat urte. Zumarragako plazan egon zen urte askotan. Hori zen bertako harria. Guk geltokietako jaietan erabili genuen, hiru idi uztarri batean jarrita, Egoitz mutiko koxkorra zela. Harrezkero geldirik egon da. Ez dakigu zergatik egin zuten horren harri handia. Normalean 2.000 kilokoak izaten dira, baina honek 2.730 ditu.

Bilobaz harro izango zara...

Bi urterekin hasi zen nirekin. Orduetik jarraitu egin du. Hori nahi nuen. Agindu asko ematen ditut, besterik ezin dut egin, baina kasu egiten dit eta ondo konponetzen gara.

Proba askotara joaten al zara?

Dezentetara. Egoitzekin askotan joaten naiz, berak jokatu behar dituenetara behintzat.

Zure gaztarotik bilobaren gaztarora, ordea, gauzak asko aldatuko ziren.

Askok. Idiak beti kanpokoak izan dira, baina prestaketa asko aldatu da. Azkartu egin da. Gaurko jendeak ez du pazientziarik. Lehen idi pareak ekarri eta zazpi edo zortzi urte edukitzen genuen, sasoi heldu arte. Orduan hasten ginen probetan. Orain, berriz, ekarri eta berehala jartzen dituzte probetan. Bestalde, lehen egun osoan lanean izaten ziren. Elikagaiak ere aldatu dira: etorri ordurako pentsua jaten dute orain. Lehen baserrian zegoena jaten zuten.

1984ko Euskal Jaia egunean.



Dopingaren kontua zaharra al da?

Tranpa kontua zaharra da. Lehen bazen, orain ere bai eta gero ere izango da. Tranpa, lagaz gero, denek egiten dute. Sekulakoak egiten ziren. Orain gogor jarri dira eta kontrol handiagoa dago.

Ba al da bereziki gogoratzen duzun probaren bat?

Erreiztarekin jokaturakoak. Hiru joko jokatu nituen eta hirurak galdu nituen, baina lehen baino lagun handiagoak gelditu ginen. Sarrerekin lortutako dirua banatu eta elkar errespetatu. Beti ondo konpondu izan gara. Joko onak harekin egin ditut.

Oraindik idiak dituzu.

Nik pare bat dut, Mendizabalena. Egoitzek bereak ditu, nik baino gehiago. Sasoia ere nik baino hobea du eta... Garai batean 12 izan nituen. Zenbat eta gehiago izan onak ateratzeko aukera gehiago, baina txarrak ateratzeko ere bai...

Emaztea ez al zen haserretzen?

Idiak ez dira gastua. Gasturako adina beti ekartzen zen. Denekin jokatzen genuen eta denek zer edo zer ekartzen zuten. Oraingoekin, berriz, dirua galtzen dut.

*“Erreiztarekin hiru aldiz
jokatu nuen eta hirurak
galdu nituen, baina lehen
baino lagun handiagoak
gelditu ginen”*

Sasoia nuenean, ondo ibiltzen nintzen.

Nola ikusten duzu idi proben etorkizuna?

Hemen, sekula baino hobea du. Azken urteotan sekulako zaletasuna zabaldu da gazte jendearen artean. Lehen biz-

'Fuego eterno' pelikularen grabaketan, Nafarroako Ituren herrian.



pahiru pare eraman behar genituen herriko jaietako saiora, beste inork idirik ez zuelako. Aurten hamaika parek eman dute izena. Poz handia ematen dit hori ikusteak. Plazan sekulako giroa izaten da. Iraun dezala.

Gaia aldatuz, noiz etorri zinen Urretxu-Zumarragara?

34-35 urte izango dira. Belarreta baserrian alokairuan geunden, hura utzi eta Isabel tabernara etorri ginen. Goldenekoak ziren aurreko jabeak.

Baserriko lanetik tabernako lanera alde handia nabarituko zenuen.

Taberna hartu genuen, baina txabola bat ere bilatu genuen, idiak edukitzeko. Txahal batzuk eta behi esnedun bat ere izan genuen, tabernarako. Gure taberna oso ezaguna zen eta, gainera, Golden ondoan egoteak mesede egiten zion. Beti zegoen jendea. Geltokitik ere jende asko etortzen zen. Goizeko 6etan irekitzen

nuen. Gustura egoten nintzen, nahiz eta larri samar ibiltzen nintzen: baserrian sekula ez zitzaidan duro baten bueltak ematea tokatu. Andrea hil zitzaidan, taberna erre ere bai, eta hilda gelditu nintzen. Alabak-eta taberna jarri zuten eta bertan asko distraitzen naiz. Kafeak ateratzen ditut. Gustatu egiten zait.

Zertan ematen duzu eguna, bestelakoan?

Goizean jaiki eta Mendizabalera etortzen naiz. Arratsaldea ere bertan pasatzen dut. Tabernan eguerdian egoten da jende gehien eta orduan joaten naiz. Ez dut beste lanik egiten.

1977ko ekainaren 12an, Muxikako lehiaketa irabazki ondoren.



Isabel tabernako istorioak

Belarreta, idiengatik ez ezik, Isabel tabernako nagusia izateagatik ere bada ezaguna herrian. Izan ere, 1992ko Euskal Jaia egunean erre zen tabernak sekulako ospea izan zuen. Legazpiar batzuek ireki zuten eta gero Goldeneko Ormazabal familiak hartu zuen. Joxe Salegik eta bere emazteak 1971ko abuztuaren 4an ireki zuten lehenengoz.

Balentiña Salegik, Joxeren alabak, ederki gogoratzen du garai hura. "Isabel topalekua zen. Ostiraletan soldadutza egiten ari zirenak Zumarragako geltokira heltzen ziren eta gure tabernan elkartzen ziren euren gurasoekin. Oso hunkigarria izaten zen. Igandeko agurra, berriz, oso tristea zen", aipatu du.

Renfe enpresako langileak ere bertara joaten ziren. "Goizeko 6etan irekitzen genuen egunero, astelehenetan bakarrik ixten genuen. Goizean salda eta haragi

egosi eta txorixo pintxoak eskaintzen genituen. Langileek botila ardoarekin eta puruarekin gosaltzen zuten. Egun, ordea, jendeak kafetegietan gosaltzen du", dio. Goiz ireki eta berandu ixten zuten. "Gauero partidak izaten ziren. Lehen asko edaten zen eta gauero jende ugari irteten zen kalera", oroitzen du. Gauzak asko aldatu dira. "Taberna hartu genuenean hiru geltoki zeuden oraindik eta topalekua Isabel zen. Adineko jendea ondo gogoratzen da tabernaz eta askotan aipatzen didate zer edo zer. Pentsa, Isabeleko zubia eta Isabeleko bidegurutzia esaten da oraindik! Garai hartan, geltokiko kantina, Paraiso eta Meliton bakarrik zeuden, gureaz gain. Beranduago, Eguzkia eta Pagoeta ireki zituzten", oroitzen du Balentiña Salegik.

Bere aitak herri kirol munduan ezagun asko zituen eta horrek ere tabernaren

ospea handitu zuen. "Aitaren eraginez, herri kiroletako jendea eta baserriar asko etortzen ziren". Zine mundukoak ere izan ziren. Izan ere, *Hamaseigarrean*, *aidanez* pelikulako zenbait eszena bertan grabatu ziren. "Nire ahizpa Finak ekoiztetxe batean lan egiten zuen eta haren bitartez etorri ziren. Oso egun politak izan ziren. Mikel Garmendia aktorea, Anjel Lertxundi zuzendaria eta Anjel Amigo ekoizlea hemen izan zirela gogoratzen dut", dio. Salegitarrek Balentiña jatetxea eta ostalua ireki zituzten taberna erre zenean. Ez zuten bezerorik galdu. "Jendeak ez zuen taberna ahaztu eta hango bezero asko jaso genituen. Santa Lutzi egunean-eta, Isabel tabernaren ordezkoa dirudi gureak. Jatetxea beste toki batean ireki izan bage-nu, beharbada ez genuen arrakastarik izango", aipatu du Balentiñak.

Mari Mar Renedo: Sahararren enbaxadore herrian

Duela bost urte, Mari Mar Renedok haur saharar bat bere etxera ekartzea erabaki zuen, uda desertuko berotik urrun igaro zezan. Ondoren, saharar herriaren alde lan egiten duen Hare Haizea elkarte sortu zuen. Ordutik, hainbat elkartasun ekimen antolatu dituzte.



Nola sortu zen herri sahararrarekin harremana?

ETBren bitartez izan nuen euren berri. Beranduago kanpamentuetara joaten zen hemengo neska batek Tolosako elkarteak harrera familiak behar zituela esan zidan. Etxean gaiari buruz hitz eginak ginen eta, azkenean, animatu egin ginen. Hurrengo urtean herrian bertan lanean hasi ginen eta dagoeneko Urola Garaia mailan aritzen gara.

Aurten Legazpiko Udalaren babesa lortu duzue.

Lehenengo Urretxukoarena lortu genuen, gero Zumarragakoarena eta orain Legazpikoarena. Erabakia hartzea kostatu zaie, baina azkenean pausoa eman dute.

Zer lan egin duzue urte hauetan guztietan?

Eskualdean herri sahararrak bizi duen egoera ezagutzera eman dugu eta herritarren artean haurren harrera bultzatu dugu. Gainera, urtero janari bilketa antolatzen dugu.

Zenbat haur ekarri dituzue elkartea sortu zenutenetik?

la urtero berberak etortzen dira, gehieneko adinera heltzen diren arte. Neska bera bosgarrenegoz etorriko da nire etxera uda honetan. Urtero hamar eta hamabost haur artean ekartzen ditugu, ez bakarrik eskualdeko familietara. Aurten, esaterako, guk ekarritako haur batek Segurako familia baten etxean igaroko ditu oporrak.

Zenbat lagun zabiltzate Hare Haizea elkartearekin?

Astearte gauero lauzpabost lagun elkartzen gara. Astero dago zereginen bat, kafea hartzea besterik ez bada.

Urte amaieran janari bilketa antolatzen hasten gara: eskoletara eta dendetara joan behar da laguntza eskatzera, jasotakoa fardeletan bildu behar da eta fardelak bidali behar dira. Ondoren, haurren harrerari dagokion lanarekin hasten gara. Haurrek irailean alde egiten dutenez, urte osoan lan egiten dugula esan daiteke.

Zuenaren moduko beste elkarteek, bestelako lanik egiten al dute?

Guk janaria bidali eta haurrak hartzen ditugu, baina beste batzuek elkartasun egitasmoak ere abian jartzen dituzte. Oraindik ez dugu halakorik egin, gurean familietako amek bakarrik lan egiten

“Eskualdean saharar herriak bizi duen egoera ezagutzera eman dugu eta haurren harrera bultzatu dugu”

baitugu. Dena den, egunen batean elkartasun egitasmoren bat babestea lortuko dugu. Ziur naiz.

Zer moduz erantzun diote familiek aurtengo deialdiari?

Oso ondo, dagoeneko hamaika sendiren eskaera jaso baitugu. Dena den, norbait gehiago haur bat hartzeko prest badago, oraindik garaiz da.

Zer esango zenioke jendeari animatu dadin?

Haurrak handik atera behar direla. Gainera, harrera familientzat ere oso

esperientzia aberasgarria da. Nik seigarrenegoz jarraian hartu behar dut haur bat eta luzaroan jarraitzeko asmoa dut. Ez dago askoz gehiago esan beharrik. Familia guztiak primeran moldatzen gara elkarren artean, lagun taldea gara eta uztaila noiz iritsiko irrikatan naiz.

Zure semearentzat ere esperientzia positiboa izango da.

Endika bere laguna noiz iritsiko zain da. Seme bakarra da eta etxean beste ume bat egote hutsa gauza handia da berarentzat. Duela gutxi ea zenbat haur ekarri behar ditugun galdetu zidan...

Zer ekimen antolatu dituzue Afrikatik datozen haurrentzat?

Beraiei igerilekura joatea eta bizikletan ibiltzea gustatzen zaie gehien. Aurten, Senda Vivara ere eramango ditugu, asteburu pasa. Donostiara joaten gara, Udalek antolatzen dituzten udalekue-tan parte hartzen dute... Gainera, mediku azterketa egiten zaie.

Zer egin behar dute bizilagunek zuekin harremanetan jartzeko?

Elkarteko kontaktu telefonoak honakoak dira: 685 729 507, 675 711 832 eta 675 711 839. Jendea inongo beldurrik gabe deitzera animatu nahi dut.

Bukatzeko, zenbatetan izan zara Saharan?

Bitan bakarrik. Baina ziur itzuliko naizela. Geroz eta okerrago bizi dira. Laguntzak murriztu dizkiete eta gazteak borrokarako gogoz dira. 17 urte pasatu dira su-etena hasi zenetik eta gauzak ez direla aldatzen ikusten dute. Batzuk gerraren alde daude eta besteek alde egin nahi dute. Beste errealitate bat ezagutu duenak, ezin du hango bizimodua jasan.

Kapitain handiaren agurra

Goierri saskibaloia taldekoek une hunkigarriak igaro dituzte maiatzean.

Hilaren 6an mailaz igotzea lortu zuten eta udalek harrera egin zieten. 19an

igoera euren zaletuekin eta jokalaria ohiekin ospatu zuten Aldirin. Ekitaldiak

Xabi Sudupe kapitaina agurtzeko eta taldearen alde egindako lana esker-

tzeko balio izan zuen. Sudupek hamalau urte eman ditu Goierriin. Garai

gogorrenetan taldeari lagundu zion eta gailurrean utzi du.



Nolatan hasi zinen saskibaloian? Zure garaian ia mutiko guztiek futbolean jokatzeko zuten.

Ni ere mutiko normala izan nintzen. Futbolean jokatzeko nuen eta Urolan hasi nintzen. 12 urte nituenean Los Angeleseko Joko Olinpikoak izan ziren eta saskibaloia modan jarri zen. Auzoko mutikoek saskibaloian jokatzeko zuten. Noizean behin nire anaiarekin eta bere lagunekin saskibaloian aritzen nintzen. Futbola utzi nuen eta, Arrasaten ikasten ari nintzela, nire anaiak zirikatatu egin ninduen. Hala hasi nintzen Goierrikoekin entrenatzen, 22 urterekin.

Horren berandu hasi zinelako uste al duzu iraun duzula horrenbeste?

Dudarik gabe. Urolan 14 urterekin hasi nintzen eta 17rekin erreta nengoen. Adin horrekin irtetzen, jende berria ezagutzen... hasten da eta zaila da talde batek eskatzen duen diziplina jarraitzea. Kirol taldea bigarren maila batera pasatzen da. Goierriin horrenbeste urte ematearen beste arrazoi bat ere bada: saskibaloia

eta partidetak lehiakortasuna izugarri gustatzen ditut.

Gustura hartuko zintuzten... ez zuten 22 urteko bat eurekin hastea esperoko.

Beno... Garai hartan askoz ere jokalaria gehiago zegoen senior mailan. Bi talde zeuden. Bigarrengoan anaia eta auzoko gainontzekoak zeuden. 20 lagun baino gehiago elkartzen ginen entrenamenduetan. Aurten oso ondo aritu gara, baina entrenamenduetan 6-8 lagun izan gara.

Zergatik eman da beherakada?

Nagusien taldean lehen baino jende gutxiago dugu, baina Valentin, Chico eta, gainontzekoak egiten ari diren lanari esker, beheko mailetan jende asko dabil. Nire ustez, Gasol-eta direla medio, bigarrengo boom bat eman da. Beharbada, hemendik urte gutxira Goierri berrir nagusien bi talde izango ditu.

Kalean jokatzetik Goierri pasatu zinen. Ez da oso arrunta.

Egun ez dira ume asko ikusten saskietan jokatzeko. Guk bagenekien egunero Gainzuriko saskietan partida jokatzeko aukera izango genuela, beti izango zirela herriko txoki guztietatik joandako hamar tipo bertan. Futbol zelaietan eta pilotalekuetan berbera gertatzen zen.

Nolako jokalaria zara?

Sekula ez dut horretan pentsatu... Beti kanpoaldean jokatu izan dut eta hasieran, jokoaz asko ez nekienez, korrika asko egiten nuen eta ikasten saiatu nintzen. Hasieran, nire ekarpen nagusia jaurtiketak ziren. Gero, ikasten joan naiz. Entrenamenduetatik eta partidetatik kanpo ere jokatzeko nuen eta telebistan partida asko ikusten nituen. Egun, joko ondo ulertzen dut.

Zerk egiten du saskibaloia horren berezia zuretzat?

Futbolaren aldean, jokalaria baloia gehiagotan du, gauza gehiago egiteko aukera du eta egiten duena gehiago ikusten da. Gainera, oso plastikoa da. Bestalde, taldea txikiagoa denez, jokalarien arteko harremana estuagoa da. 14 urtetan taldeak gorabehera asko izan ditu, baina giroa ez da sekula txarra izan.

Kapitaina eta beteranoa izanik, horretan zeresan handia izango zenuen.

Hasi eta bost urtera jende askok utzi zuen

“Entrenamendu guztietara joan naiz, nahiz eta kanpoan egon lanean, eta taldean giro ona sortzen saiatu naiz”

eta dagoeneko beteranoenetakoa nintzen. Hiru urtetan jokalaria eta, aldi berean, entrenatzailea izatea tokatu zitzaidan. Jokariok arduratzen ginen guztiaz, ikastolan entrenatzen ginen... Jendeak errespetua didala uste dut, baina ez naiz aholku zalea. Nire ekarpena, batik bat, erudugarri izaten saiatzea izan da. Entrenamendu guztietara joan naiz, nahiz eta kanpoan egon lanean, eta taldean giro ona sortzen saiatu naiz. Hitzak baino, ekintzak nahiago ditut.

Zergatik utzi duzu?

Nahikoa egin dut. Oso ondo pasa dut eta asteburuko partidak drogarik onena izan dira niretzat, baina Oñatin bizi naiz eta entrenamenduetatik 23.30ak aldera hel-

tzen nintzen... Gogorra da eta beste gauza batzuk egin nahi ditut. Mendira joan, adibidez. Gainera, 35 urte ditut eta hori nabaritu egiten da. Aurten txorkatila bihurtu dut eta 25 urte nituenean baino askoz ere gehiago kosta zait gero sasoiak jartzea. Neure burua motel ikusten nuen eta horrek amorrua ematen du. Beti maila ona eman dut eta ez dut jendeak soberan nagoela pentsatzea nahi.

Dena den, noizean behin saskibaloian jokatu duzu hemendik aurrera ere...

Noski. Seguru aski, datorren denboraldian astean behin entrenamenduetara etorriko naiz.

Taldea goran uztea pozgarria da.


Oso beheran ezagutu dut. Garai hartako partidetak nire arreba eta beste lau katu etortzen ziren. Taldea goian uztea itzela da niretzat.

Une bereziki gozorik oroitzen al duzu?

Bi oroitzen ditut. Duela urte batzuk, garai-pena eman zigun hirukoa sartu nuen azkeneko segunduan Azpeitikoaren aurka. Bestalde, duela bi urteko igoera sekulakoa izan zen. Azken partida etxean jokatu genuen eta igoera irabazten zuenarentzat zen. Beste une gozo asko gogoratzen ditut, partidetakoz ez direnak ere bai.

Zein da Goierri bizi izan duzun unerik gogorrena?

Erantzun topikoa da, baina lesioak dira okerrera. Ez dut larrik izan, baina guztiak dira txarrak. Izan ere, saskibaloitik aparte gure lana dugu eta kirola ondo pasatzeko egiten dugu. Beheko mailetan egon ginen garaia ere oso txarra izan zen. Saskibaloia sailean urte asko zaramatzen jendeak utzi egin zuen, dagoeneko erreta zegoelako, eta jokariok eutsi genion. Bi urtera itzuli ziren, indarrak berrituta.



Alex Areizaga

Informatika

KK in'zona irratia entzuteko

Herriotan irrati libre bat sortu dela medio, (KKin'zona irratia) hau nola entzun ikusiko dugu ale honetan. Internet bidezko irrati askok zuzenean entzuteko botoia badute ere, beste askotan ez da horrela. Irrati hauek entzun ahal izateko, musika erreproduktore bat behar dugu. KKinzonaren kasuan gainera, *Windows Media Player*-ean funtzionatzen ez duenez, nahitaezkoa egiten da erreproduktore bat jaitsi edo lortzea. KKinzonaren webgunetik egin dezakegu hau, irratiaren atalean *Winamp* programa baitago edonoren eskura. Jaitsi, instalatu eta interneteko helbide bat (*URL* helbidea) ireki beharko dugu. Horretarako, sakatu *File* (Archivo) (*Winamp*-en botoia ezker-goialdean ageri den ondulazio moduko bat izan ohi da) eta hor *Play* (Abrir) *URL* (red) botoiari eman. Bertan, irratiak emititzeko darabilen helbidea kopiatuko dugu KKinzonaren webgunetik eta return botoia sakatu ondoren. Eta lasai, hau guztia lehenengo aldian soilik egin behar da, jada programak berak gordeko baitu helbidea hurrengorako.



Deiane Perez

Osasuna

Osteoporosia

Osteoporosia gorputzeko hezur masa galtzean ematen den gaitza da. Hezurren trinkotasuna gutxitzen denez, hauek porotsuagoak, finagoak eta ahulagoak bihurtzen dira, kolpeak okerrago jasan eta erraz puskatuz. Gaixotasunak ez du sintoma nabarmenik agertzen garatzen ari den bitartean, beraz, gaixoa ez da hainbat haustura izan arte duenaz jabetzen. Emakumezkoak dira gaitza garatzen arrisku handiagoa dutenak (menopausia da arrazoi nagusia), gizonezkoek ere sufritzen duten arren. Alkohola, kafeina, tabakoa, egoneko bizitza, kaltzioan pobrea den dieta edota menopausia goiztiarra, agerpena errazten duten faktoreetako batzuk dira. Gaitzak aurrera egin ahala ondorio latzak ekar ditzake, orno eta aldaka haustura, bizkarreko mina eta hezur sentzibilitatea esate baterako. Hortaz, haurtzarotik prebentzio neurri batzuk kontuan hartzen baditugu, hezurraren osasuna mantentzen saia gaitzke. Jan neurri egokiak, ariketa fisikoa erregularitasunez egitea, dantza egitea, tenisean aritzea, yoga praktikatzea edo alkohola eta tabakoa neurrian kontsumitzeak mesede egingo digu!

Ostrukak trenean

Minutu bakarreko egunek aste beteko nekea uzten dute, eta treneko aulkiak gogorregiak dira deskantsurako. Erosketez betetako poltsak ere erortzen badira, ezin dira onak izan gure bizkar-hezurrentzat. Cuesta jartzen duen bat oraintxe bertan amildu da nire begien parean. Hiru denboratan erori da: lehenengo udaberrikoa dirudien berde argi koloreko txaketa bat; ondoren, txaketa osatzen duen kolore bereko gona; eta azkenik, botatzea pena ematen duen plastikozko poltsa, Cuesta jartzen duena.

Horien atzetik, hiru denboratan egin dute salto nire begiek ere. Baina, eskuin zangoa izan da behar bezala erreakzionatu duen bakarra. Luzatu egin da arropak salbatzeko. Izan ere, euritan babesten gaituzten aterkiek busti egiten gaituzte trenean, eta errekatxo bat jaio da loredun aterki batetik, pareko bi eserlekuen arteko burdin gorrian zintzilikaturikotik. Pena izango litzateke arropa erosi berriak errekatxo hori lehertzeko erabiltzea. Bataio, jaunartze eta ezkontza garaian gaudela kontuan izanik, norbaiten elizkizun ilusioak bustitzeko arriskuan egon dira.

Pareko eskuak trajearen jabea den emakumearenak dira. Pareko eskuetako eraztunak zilarrezko ezteiak bete ditu behatz horretan. Pareko eskuek zerbait esan nahi didate. Emakumeak inon kabitzen ez zaizkiolako edo gurutzatzen ditu. Hasiera batean, telebistako emakumezko aurkezleek pausatzen dituzten moduan daudela ematen du. Eskuinekoak ezkerrekoa mendean hartu du, fin eta leun. Baina azkarregi oldartu da ezkerrekoa, eta ez hain fin eta leun.

Biak larru marroizko poltsa baten gainean daude, hasiera batean, ahuspez etzandako ostruka bat osatzen dutela ematen du. Hala ere, ez nuke esango lasai lo dagoenik. Amets gaiztotik ihesi hegoak mugitzen hasi baita hegaztia. Pareko emakumearen hatzek ez dakit



zer harraskatu nahi duten, baina batere kulparik ez duen larru marroizko poltsari ari zaizkio atzamarka.

Eskuineko eskuaren, ezkerrekoaren eta larru marroizko poltsaren azpian igandetako prakak daude, beltz-beltzak. Punta karratuko zapata batzuen gainera erortzen dira, meneko. Larruzko poltsaren kolore berekoak dira oinetakoak. Txukun baina eroso etorri nahi izan du emakumeak. Medikua renera etorri bada, kontsulta arrunt bat egitera etorriko zen. Gaixotasun larriren batek ekarriko balu, ez bailuke erosketekin hainbeste poltsa betetzeko animurik izango. Hilabetean behin elkartzen diren lagunekin kafea hartzeko soilik etorriko balitz, ez litzuke eskuak halako urduritasunez mugituko. Ez dakit zer kendu nahi dien eskuei, zer desagerrarazi nahi duten, zer duten garbitzeko. Ez dakit bere eskuetan utzi dudan nire ostrukak zer esan nahi didan.

Amaia Artolazabal

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Aitor Calvo

Maiatzean Eitzagako jaiez gozatzeko aukera izan dugu, Aitor Calvok eta festa batzordeko gainontzeko kideen lan onari esker. Calvo elektrikaria da Irizarren, txistularia Antziñako Ama taldean eta Realzalea ere bai. Gabiriako Bekoetxe baserrian eman zituen bere bizitzako lehen hiru urteak, Eitzaga auzoko etxeak egin zituzten arte. Ikastolan eta La Sallen egin zituen ikasketak. 11 urterekin txistua jotzen hasi zen. Duela 8 urte, berriz, Eitzagako jaien antolaketa murgildu zen. Auzoa ez du saltzeko. "Herrian joera ezberdineko jendea ez da hemen bezainbeste nahasten", dio.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dakit zer izan nahi nuen, baina tresnak konpontzea gustatzen zitzaidan.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin egotea eta mendira joatea.

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga.

Eitzagako jaiak ala Zumarragakoak?

Bietan ondo pasatzen dut, baina Eitzagakoetan lan gehiago egitea tokatzen zait.

Nor jarriko zenuke Eitzagako alkate?

Lazaro Ormazabal.

Zer eskatuko zenioke alkateari auzorako?

Festa batzordearentzat lokal ona eta iturri batzuk.

Realak mailari eutsiko al dio?

Nahi bai, baina ezin baietz esan seguru.

Zer aldatuko zenuke Realean?

Atzeritarrak ekartzekotan, maila onekoak ekarriko nituzke, Savio modukoak. Egun dauden gehienek ez dute ezer eskaintzen. Bestalde, futbol zelai berria egingo nuke.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak.

Egindako azken oparia?

Amari urtebetetze egunean oparitu nizkion mendiko zapatilak.

Eta jasotakoa?

Aste Santuan Gorkak ardo kaxa ekarri zidan.

Data bat?



Santa Isabel eguna oso polita da zumarragar guztiontzat.

Neska eta mutil izen bana?

Lide eta Mikel.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Dezente irakurtzen ditut. Erosi, normalean, Gara eta Noticias de Gipuzkoa erosten ditut.

Gustuko telebista saioa?

Wazemank, barre pixka bat egin eta eguneroko buruhausteak albo batera uzteko.

Bereziki gorroto duzuna?

Saio arrosak eta *Mira quién baila*.

Liburu bat?

Aspaldi honetan ez dut libururik irakurri.

Abesti bat?

Bat esatekotan, Benitoren *Erribera*. Abesti asko ditut gustuko. Ruperren *Berandu dabiltza* ere asko gustatzen zait.

Filma bat?

El pianista.

Soinu bat?

Haizeak ateratzen duen txistuaren antzerko hori.

Usain bat?

Egia esan behar badut, ez dut oso usaimen ona. Txikitan dezente galdu nuen eta alergia kontuak ere ez dit laguntzen.

Janari bat?

Asko. Kokotxak eta makailoa saltsan, adibidez.

Ura ala...

Ardo ona.

Urretxun...



egin behar dugu

Itziar Agirre Berriotxo
Urretxuko Alkatetzarako
hautagaia



Zumarragan...



egin behar dugu



Juan Jose Sagarna Zumalakarregi
Zumarragako Alkatetzarako
hautagaia



↘ **Kalitatea, prezioa eta profesionaltasuna, zure eskura !!**

Los mejores productos a **precios inmejorables**




Neumatikoak

¡Todas las marcas al mejor precio!

- » Neumáticos
- » Aceites
- » Baterías
- » Anticongelantes
- » Revisiones
- » Amortiguadores
- » Limpiaparabrisas
- » Llantas

Presta ezazu kotxea eta segurtasunez gidatu!!

Olio aldaketa



Cambio aceite

Neumatikoak



Neumáticos

Llantak



Llantas

Prepara tu coche y conduce con seguridad !